

## Josu Eizmendik bigarren saria eskuratu du

Madriren egin den Conforp lehiaketan lortu du Dani Garcia ikaskidearekin

### IMANOL GARCIA



Josu Eizmendi alkizarrak, Dani Garcia ikaskide lasartearekin batera, bigarren saria lortu zuen aurreko astean Madriren egindako Conforp automozio lehiaketan. Hego Euskal Herriko eta Espainiako ikastetxe ezberdinetako zortzi bikotek hartu zuten parte. Oso gustura daude lortutako emaitzarekin, ez baitzuten espero postu horretan gelditzea. «Madrilera lagundu zigun maisuarekin apustua egin nuen», esan dio Josu Eizmendik Hitzari. «Nik azkenengo hiruren artean geldituko ginela esan zuen eta berak lehenengo hiruretan. Berak irabazi zuen apustua».

Erreterriako Don Boscon bukatu berri dituzte ikasketak Eizmendik eta Garciak. Madriren egindako lehiaketan elektromekanikako alorrean hartu zuten parte. Lehian parte hartzeko, Interneten test bat egin behar izan zuten eta ondoren lan bat aurkeztu autoen esekidurari buruz. Epaimahaiokoe beren lana aukeratu zuten eta Madriren izan ziren aurreko astean. Bost proba praktiko eta bi teoriko egin behar izan zituzten. Proba praktikoetan Mercedes etxeko auto ezberdinen elektromekanikari buruz jakin behar zuten eta baita zenbait matxura konpndu ere. Bi ikaskideek hain justu Mercedes markako tailerretan aritu dira praktiketean eta lanaean. Agian horrek balio izan zien bigarren saria lortzeko.

Halere, probak amaitzerakoan ez zuten espero horrelako emaitzarik lortzea. Eizmendik eta Garciak garaikurra, diploma eta 150 euro jaso zituzten bakoitzarentzat. Ikastetxeak ere jaso zuen saririk.

Mekanikari alkizarrak egun Irurako Mercedes etxeko kamioi tailerran ari da lanean. «Betidanik gustatu zait mundu hau. Gaztetatik Baserrian traktorean-eta saltseatzen ibili naiz», azaldu du. Afizioa lanbide bihurtu du.